



HELBURU FISAHARA

EUSKERA

Sarrera

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia

Saharako Nazioarteko Zinemaldia (FISahara), 2002Z urtean sortua, CEAS Sahararen Lagunen Elkarteen Estatuko Koordinadorako Presidentearen ekimen pertsonala da, eta hari zor zaio, hari zor zaionez, Zinemaldiak Espainiar Zinemagintzako hainbat eta hainbat eragile dinamikoren atxikimendu sutua bereganatu izana.

Halaxe, bada, lan guzti haren ondorioz, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan, Aljeriako basamortuan, dagoeneko zortzi edizio gauzatu ahal izan dira, zeinetan urterik urtera zinemaren mundutik eta oro har nazioarteko kultur girotik gero eta jende, erakunde eta topagune gehiago batu diren.

Donostiak hasieratik heldu dio ekimen horri, hainbat arlotatik heldu ere. Adibidez, Donostiako Zinemaldiak 2008ko edizioan bere babesa adierazi zion FISaharari, Magrebeko, portugesez mintzo diren afrikar herrialdeetako eta garapen bidean dauden beste zenbait arabiar herrialdeetako zinegileek egindako zinemaren sormena eta zabalpena sustatzeko egiten duen ahalegin eskerga aintzat hartu zuelarik. Hain zuzen, lan-ildo hari helduta babestu zuen Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak mundu osoan errefuxiatu-eremu batek burutzen duen zinemaldi aitzindari eta bakarra, saharar herriarentzako kultur plataforma bat sortzeko tenorean berebiziko ekarpena dena, antolatzeko tenorean ezin konta ahala oztopo izan arren.

Halaber, dagoeneko bederatzi urte dira Donostiak, hots, 2016ko Europar Kulturaren Hiriburuak, burutzen duela Giza Eskubideen Nazioarteko Zinemaldia, gizateriaren erronka, nahimen eta eskastasunei buruz ikusmolde kritikoa, solidarioa, aldarrikaria eta anitza eskaini eta eragiteko xedez, betiere giza eskubideen defentsa eta sustapenaren, askatasunezko bizikidetzaren eta bake kulturaren zein balio demokratikoetan oinarritutako hezibidearen alde diharduelarik. Gure Zinemaldia bakarra da, Espainiako Estatuan, mundu osoko giza eskubideen aldeko zinemaldi nagusiak bere baitan biltzen dituen Human Rights Film Network Giza Eskubideen Nazioarteko Zinemaldien Sarean dagoena.

Gure hiriak, Donostiak, 1988az geroztik Arabiar Errepublika Demokratikoko Bojador-ekin senidetua dagoenez, Saharar Herriarekiko elkartasun-konpromisoa berretsi nahian, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren



eta FISahararen arteko «Senidetasun eta Elkarlan Protokolo» berri bat sinatu du. Hala eginda, Zinemaldi bien elkar ezagutza, sustapena eta bikaintasuna indartzeko ekinbideak garatu ez ezik, Saharar Herriaren justiziazko kausaren aldeko laguntza berriak bateratu eta gehitu nahi dira, bai eta Estatuko nahiz atzerriko erakundeen aurrean azken 35 urte luzeotan sahararrak halako egoera larrira hartaratu dituzten arrazoi eta erantzukizunak salatu ere.

Kutxaren diru-babesaz, Masasam. Espacios de Creación delakoaren zuzendaritzaren laguntzaz eta Donostiako Sahararen Lagunen Elkartearen bultzadaz egindako liburu honek, bada, honako hau du helburu: kultura eta giza eskubideen munduko jendeak, oro har, eta bereziki zinemarenak, bidegabekeria nabariaren egoera larri eta harrigarria bertatik bertara ezagut dezaten.

Bertan egon direlako edota laguntza eman dutelako esperientzia horretan parte hartu dutenen sententzioak, inpresioak eta adierazpenak islatzen dituzte datozen orrialdeok, irudiak eta testuak lagun. Are gehiago, orrialdeok frogatzen dute zinema, entretenigarri edo herrien artean elkar hobeto ulertzeko eta kultura sortzeko bide hutsetik harago, XXI. mendean oraindik orain zigorgabe dirauten bidegabekeriak salatzenko plataforma ere izan daitekeela, eta izan behar duela.

FISahara

Juan Karlos Izagirre Hortelano

Donostiako alkatea

Irudi bat, istorio bat, doinu edo kanta bat gure baitan amorruta, pena, poza, maitasuna, gorrotoa, elkartasuna, justizia edo bestelako sentimenak eragiteko gauza den heinean, denbora-pasa huts izateari utzita, besterik bilakatzen da. Irudia, istorioa eta doinua batu egiten direnean, film bat sortzen da, formatua edota estiloa zeinahi dela ere; eta, maiz gertatzen den bezala, filma hainbat lagunekin batera, komunitatean ikusten bada, komunioa sortzen da: hots, azaltzen zaila den baina izan baden zera berezi bat.

Eta halaxe sortu zen, hain zuzen ere sentimen maiz esplikatu ezinak sorrarazteko gogoz, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, munduko inportanteenetariko bat, ospakizun galanta, munduko bazter guztietatik zinemazaleak erakartzeko gai dena. Munduan ematen diren denetariko errealitate historikoen ispilu ere bada: Hollywoodeko zinema peto-peto eta glamourez beterikotik hasi eta konbentzionala denean ere erakargarri zaigun Europakora arte, tartean guretik urrun dauden herrialde eta kulturen proposamen alternatiboenak txertatzen direla, zeluloideak eman ditzakeen formatu guztietan erakutsita.

Hain zuzen, bere mailako beste zinemaldi asko ez bezala, gurea zabala da, irekia, eta hala delako, duela urte batzuk bide berria zabaltzen dio mundu osoan gutxitan gauzatu den esperientzia izugarri interesgarri bati; alegia, abegi ona eman dio FISaharari, errefuxiatu-eremu batean sortu eta gauzatzen den zinemaldi bakarrari. Zinemaldi horren ezaugarri nagusia, noski, zinemaz haragokoa da, oihu bat da, ukabil bat: Aljeriako Hamadan, Saharako basamortuan dagoen eskualderik elkor eta idorrenean, herri batek, zutik, Espainia eta Marokoko Erresumak errudun dituen bidegabekeria salatzen du, 1975az geroztik 200.000 saharar eremu harritsu hartan nola edo hala bizitzera behartuak baitaude.

Halaber, duela bederatzi urte Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia sortu zen, gizateriaren erronka, nahimen eta eskastasunei buruz ikusmolde kritiko, solidario, aldarrikari eta anitza eskaintzeko xedez, sortu ere. Hain zuzen, iaz, Zinemaldiaren baitan Fisahararekiko senidetzea gauzatu zuen, honezkero egon badauden adiskidetasun-harremanak elkarlan iraunkor eta sendoan finkatuko dituelakoan, batetik, eta saharar herriak pairatzen duen egoera nazioartean ozenago salatze baliagarria izango delakoan, bestetik.

Saharako zinemaldia bertatik bertara, basamortuko hondarraren gainean, ezagutzeko pribilejioa izan dut. Horrexegatik, jakinaren gainean egiazta dezaket zinema, oraingo honetan FISahara, baliabidetzat duela saharar herriak, nozitzen duen bidegabekeriaren garratza munduari erakuts diezaion. Egun horietan, basamortuko ilargiaren argiari zinemarena gehitzen zaio, gauaren gozagarri; hondarra izaten dugu alfonbra gorri, eta inoiz imajina genezakeen zine-aretorik ikusgarrienean izarrek ñir-ñir egiten digute.

Egun horietan, ahuntzen, gameluen, haur oinutsen, gizonen durbanteen eta emakumeen melfa koloretsuen artean, izar uxok harat-honat dabilta, errefuxiatuen lagun; zinemako izarrak ere badira, inguratu ohi dituzten distirak eta idoloak bazter utzi eta kazetari, zuzendari, kantari, teknikari eta gainontzeko langileekin batera «hareatzara» joaten direnak. Egurdiko eguzki saparen azpian, gaueko hotzaren hotzez eta, batzuetan, baita siroko haizearen uluaz gor, bat egiten dute oihiarekin, altxatzen den ukabilarekin.

Tindufeko kanpalekuetan zinemaren magiaz gozatzeko egun batzuk baino gehiago da FISahara. Ekitaldiaz beraz gain, gauero aire librean herritar guztientzat zine emanaldiak egiteaz gain, urteko egunen monotonia hautsi egiten dute zine eta irudi eskolaren ernamuin izan diren zine-tailerrek, zeluloideaz nahiz saharar errealtateaz diharduten erakusketek, hitzaldiek, topaketek, esperientziek... Hura guztia ematen da haien irudiaren altzoan, bertako jendeen abegi onean, teak, solasaldiak, dantzak eta umore ona lagun. Alegia, hazkunde-iturri ez ezik, bestelako jende eta kulturekin senidetzeko bide ere bada sahararentzat beraientzat, baina batez ere geuretzat; izan ere, oraingoan topikoa egia denez, haiengana hurbiltzen denak sentitzen du askoz gehiago dela bereganatzen duena, eramaten duena baino.

Euskal Herria, gure hiria, Donostia, paper ofizialetan senideak ez ezik, saharar herriaren adiskideak eta konplizeak dira: indartsuenak geure etorkizuna erabakitzen ez uztea zer den dakigun bi herri gara, bada, zeinek bere ezaugarri bereizgarriak baditu ere. Horrexegatik, hiri honek jarraituko du oihiu egiten eta ukabila altxatzen, bidegabekeria nonahi salatzen, oraingo honetan gure Zinemaldi biok haien esku jartzten, FISahararen eszenategi, oihiuaren bozgorailu eta ukabilaren irudi izan daitezen.

Betidanik begitandu zait oso zaila sentimenak testu eta iruditari azaltzea; obra honek, ordea, erdietsi egin du. Neuri, sentimen bat besteen gainean gailentzen zait: elkartasuna, mundua gero eta globalizatuago delako mundutarretik gero eta gutxiago duen mundu honetan gero eta nekezago aurkitzen dena. Elkartasuna dugu bide, gehiegitan mortu, baina beti bide, justizia utopia ez baina zuzenbide dela erakusten digunez; ibilian bidea jorratzen dutenen bide,

saharak kausaren aldekoen, sahararren beren eta oro har munduan herriak askatzeko hainbeste borrokari laguntza ematen diotenen bide.

FISaharak, hura posible egiten duten guztiek, eta kasu honetan baita zinemak berak ere, zeluloidearen argitan egiten dute bide; argi horrexek lortu du, bada, askok eta askok horren itsu joka ez dezagun eta azken 35 urte luzeotan borrokan diharduen herri oso baten egia gordina eta justizia ikus dezagun.

Eskerrik asko FISahara sucran

Zinema, argudio solidario gisa

Carlos Ruiz González

Kutxaren Gizarte Alorra eta Komunikazioko Zuzendaria

Distantziarik eta oztoporik gabeko mundu solidario baten utopia bertan behera erortzen zaigu Mendebaldeko Sahararen eta Tindufeko kanpalekuen egoeraren berri jakin edo goratu orduko.

Eguneroko betebeharra asetzeaz beste partekatzerik baldin badago, hori amesteko gaitasuna da. Hartarako, ez dago zinema baino hoberik. Adibidez, zinema kultur kezkatzat partekatzen dugu: zilegi bekigu halako esamoldez izendatzea ia hirurogei urteko gure Zinemaldia eta FISahara gaztea arte adierazpideak. Zinemak iruten duen hariak lotzen ditu, eta bat egiten, Saharako basamortuaren lurralde itzela eta Gipuzkoa berde txikia.

Hari hori indartu nahian dihardu Kutxak, hain zuzen konturatu delako FISahara sustatzen, lantzen eta gauzatzen dutenek saharar herriari helarazi nahi diotena askatasun, justizia eta, funtsean, etorkizun nahimena dela. Badakigu oraindik ahalmen mugatu samarra duela haren bozgorailuak; baina jakin ere badakigu hazi eta hazi egingo dela. Areago, Kutxak FISaharan ikusten duen itxaropen-testigantza bai dela mugagabea.

Kutxa solidarioa da. Dagoeneko mende luzea da solidarioa dela jatorrizko



lurraldean, Gipuzkoan, eta harrez geroztik gero eta solidarioagoa da. Gizarte baten aurrerapen maila besteenganako babes, elkartasun eta laguntza mailan neurtzen dela pentsatzen dugu. Bai eta gure kolektibitatean bizibide gutxien duten herritarrei aurrera egiteko eskaintzen zaizkien aukeren mailan ere.

Gure lurraldean lan egiten dugu, baina urruti eta luze begira: ez dugu soraio jokatu nahi ezein gatazkataren, ezein tragediaren aurrean; aitzitik ere, halakorik izanez gero, hobetzen lagundu nahi dugu. Ditugun mugak ditugula kontuan hartuta, are gehiago orain, pairatzen ari garen ekonomia-eta finantza-krisi garai honetan.

Baliabideak nola edo hala eskuratzen ahalegintzen gara, bada, bidezko ekimenek aurrera egin dezaten; esaterako, herri baten aldarrikapenak hedatzeko bozgorailuak, FISaharak, behar adina watt beregana dezan, herri hartako gizon-emakumeen itxaropenak euskarria izan dezan, itxaropenak behera egin ez dezan.

Ez da paradoxa bat: ziur gaude FISaharak eta berarekin dakarrenak bere egitekoa ongi betetzen badu, Gipuzkoari lurralde lankideago eta solidarioago izaten lagunduko diola. Izan ere, elkartasunak ez bestek egiten gaitu hobeak. Maitetasun osoz, goraintziak eta eskumuinak Nina, Shelek, Khadija, Omar, Selki, Lehibib, Demba... eta Tindufeko nire “beste” gainerakoei.

Harresiak

Eduardo Galeano

Berlingo Harresia eguneroko albiste zen. Goizetik gaueraino irakurtzen, ikusten, entzuten genuen: Lotsaren Harresia, Irainaren Doilortasunaren Horma, Burdinazko ErrezelaHesia...

Azkenean, erori zen, erortzea merezi zuen harresi hura. Baina beste harresi batzuk eraiki dira, eraikitzen ari dira, munduakmunduan, eta Berlingoa baino askoz handiagoak diren arren, gutxi edo batere ez da hitz egiten hberauetaz.

Gutxi hitz egiten da Estatu Batuak Mexikoko mugan egiten ari direnaz, eta gutxi hitz egiten da Ceuta eta Melillako burdin hesiazhesiez.

Ia ez da aipatzen Zisjordaniako Harresia, nahiz eta palestinarren lurretanz israeldarren okupazioa betikotzen duen az eta laster Berlingo Harresia baino hamabost aldiz luzeagoa izango denaz.

Eta txintik ez, txintik ere ez da esaten Marokoren Harresiaz, duela hogeit urtetik hona Mendebaldeko Saharanren marokoar okupazioa betikotzen iraunarazten ari denaz. Harresi hau, muturretik muturrera minaz josia eta muturretik muturrera milaka soldaduk zaindua, Berlingo Harresia baino hirurogei aldiz luzeagoa da.

Zergatik ote daude hain harresi entzunak/ozenakhanpatuak eta hain harresi hain mutuak? Egutero hedabide handiek eraikitzen dituzten inkomunikazioaren harresiengatik izango ote da?

Harresiak I

2004ko uztailean, Hagako Nazioarteko Auzitegiaren epaia izan zen Zisjordaniako Harresiak nazioarteko zuzenbidea urratzen zuela erabaki zuen Hagako Nazioarteko Auzitegiak, eta eraisteko agindu zuen. Orain arte Israelek ez dio jaramonik egin.

1975eko urriank, Auzitegi berak eman zuen epai hau: «Ez dago subiranotasun-lokarririk Mendebaldeko Sahararen eta Marokoren artean». Esan gabe doa Marokok ez -entzun egin ziola egin zuela. Are okerrago: epai horren biharamunean, inbasioa, *Ibilaldi Berdea*, hasi zuen, eta laster odol eta gar sartu zen besteren lurralde zabal haietan, bertan bizi ziren gehienak kanporatuz.

Eta han jarraitzen du.

Harresiak II

Nazio Batuen ebazpen ugarik berretsi dute saharar herriarenk autodeterminazio-tzeko duen eskubidea.

Eta zertarako ebazpen horiek? Erreferenduma egitekoak ziren, herriak erabaki zezan bere etorkizuna. Garaipena ziurtatzeko, Marokoko erregeak marokoarrez bete zuen lurralde inbaditua. Baina handik gutxira, marokoar haiek ere ez zitzaizkion fidagarri gertatzengertatu. Eta baietz esandako zuen erregeak gero «auskaloauskalo» esan zuen, e. Eta gero, ezetz esan zuen, eta . Oorain haren semeak ere, tronuaren oinordekoak, ezetz esaten du. Ezezko hori aitortza garbia da. Boto-eskubidea ukatuz, herrialde bat lapurtu duela aitortzen du Marokok. Onartzen jarraituko al ote dugu, normala balitz bezala? Onartu egingo ote al dugu demokrazia unibertsalean menpekookmendekook obedientziarako eskubidea bakarrik dugula?

Zertarako balio izan dute Israelek lurralde palestinarretan ezarritakon israeldar okupazioaren aurka Nazio Batuek hartutako ebazpen ugariek? Eta Kubaren blokeoaren aurkako ebazpen ugariek?

Honela dio esaera zaharrak:

- Hipokresia da bizioak bertuteari ordaintzen dion zerga.

Harresiak III

Gaur gaurkoz, nazio dominatzaileen pribilegioa da patriotismoa abertzaletasuna. Nazio dominatuek menderatuek zertzen dutenean, populismo edo terrorismotzat harjotzen da abertzaletasunapatriotismoa, edota ez zaio jaramon izpirik egiten.

Saharar patriotek abertzaleek hogeita hamar urte daramatzate munduan dagokien lekua berreskuratzeko borrokan, eta laurogeita bi herrialderen onarpen diplomatikoa lortu dute. Horien artean dago nire herrialdea, Uruguai, duela gutxi bat egin baitu Latinoamerikako eta Afrikako herrialde gehienekin. Baina Europak ez. Ez dago European herrialde bakar batek ere ez durik Saharar Errepublikan onartu duenik. Espainiak ere ez. Eta hau erantzukizunik ezaren arduragabekeriaren kasu larria da, edo amnesia kasua agian, edota desamodio kasua gutxienez. Duela hogeita hamar urtera arte, Sahara Espainiaren kolonia izan zen, eta Espainiak bere haren independentzia babesteko betebeharrak legal eta morala zuen.

Zer utzi zuen han menderakuntza inperialak? Mende baten ondorenburuan, zenbat unibertsitario prestatu ote zituen? Ba, gGuztira, hiru: mediku bat, abokatu bat eta merkataritza-peritu bat. Horixe utzi zuen. Eta traizio bat ere bait. Espainiak azpilean eskainieskura eman zizkion lurralde hori eta bete bertako jendeak biztanleak Marokoko erresumak erresumari, irentsi zitzaibere gogara irensteko.

Ordudanik, Sahara da Afrikako azken kolonia. Independentzia ostu diote.

Zergatik ez ote dute begiek ikusi nahi begietarako hain mingarria dena?

Harresiak IV

Sahararrak trukerako txanpon izan direlako ote da? Marokok, berea izan ez arren, saltzen duena erosi nahi ten duten enpresek eta herrialdeek trukean eskainitako txanpona?

Duela urte pare bat, Javier Corcuerak Bagdadeko ospitale batean Iraken aurkako bonbardaketen biktima bat elkarrizketatuk zuen Bagdadeko ospitale batean. Bonbak batek beso bat suntsitua zion. Eta zZortzi urte besterik ez zituen eta hamaika ebakuntza jasandako neskatilea hark esan zuen:

-Hobe genuke petroliorik ez bagenu.

Agian Saharako herria ere errudun da bere kosta luzeetan Ozeano Atlantikoko arrain-altxorrik handiena dagoelako, eta bere hain hutsik diruditen hareatza hareatza izugarrien amaigabeen azpian munduko fosfato-erreserbarik handienak dituelako eta agian baita petrolio, gasa eta uranioa ere.

Koranean, ez badago ere, egon zitekeen profezia hau:

-Naturako aberastasunak jendearentzateen madarikazio izango dira.

Harresiak V

Errefuxiatuen lheslarien kanpalekuak, Aljeriako hegoaldean, basamorturik mortuenean daude. Zabaldi hutsa da, ezerezez inguratua, non harriak bakarrik hazten baitira. Eta, hala ere, eremu gorri elkor horietan, eta askaturiko zatietan, batere hobeak ez!, gizarterik irekiena sortzeko gai izan dira sahararrak, eta herrialde musulman guztien artean matxismorik gutxienekoa.

Sahararren mirari hau, oso behartsuak eta oso gutxi izan arren, batetik aske izateko borondate sendoak azaltzen du, eta horixe erruz dago hemen gainerako guztia falta den leku bazter honetan; eta bestetik, neurri handi batean, nazioarteko elkartasunak azaltzen esplikatzen du.

Eta Espainiako herrietatik dator laguntzaren zatirik handiena. Herri horien energia kemen solidarioa, duintasunaren oroimen eta sorburu, askoz ahaltsuagoa da gobernuen joan-etorriengorabeherak eta enpresen kalkulu ziztrinaknena baino.

Eta solidaritatea esan dut, ez karitatea. Karitateak umiliatu egiten du. Ez dabil oker afrikar esaera zahar hau:

-Hartzen duen eskua ematen duenaren azpitik dago beti.

Harresiak VI

Sahararrak zain itxaroten daude. Betiko bizi behar ote dute larrimin eta galdutakoaren mira horrekin? Iheslarien kanpalekuek bBahitu zizkieten hirien, elkartzeko gune galduen, eta beren gurarien sorlekuen izenak dauzkate iheslarien kanpalekuek: El Aaiún, Smara...

Hodeien seme-alabak deitzen dituzte dituzte beren buruaburuakk, euriaren atzetik baitaibiltza betidanik.

Hogeita hamar urte baino gehiago dira justiziaren atzetik dabiltzala ere, gure garaiko munduan basamortuan ura baino urriagoa, dirudienez basamortuan ura baino urriagoa gure garaiko munduan.

Harresiak VII



Lehen nazioarteko zinemaldi sahararra (2003ko AZAROAK 20-23)

Paul Laverty

Eskuzapi hezeak, kirol oinetakoak, botika mordoa, 50 film DVDtan eta linterna baliotsua, den-dena motxila zahar batean mukurua pilatua. Orduko hartan, tximeletaren beharrik ez paparrean; halaxe adierazi zuen Fronte Polisariok, Lehen Nazioarteko Zinemaldi Saharar hartan ez zirela batere beharrezkoak etiketako edo eskote handiko jantziak. Zinemaldiak Smarako kanpalekuan izan zuen egoitza, Aljeriako Hego-mendebaldean, hain zuen Mendebaleko Sahararen mugaz bestaldean.

Madriko aireportuan, zinegileak (gehienak espainiarrak), aktoreak, kazetariak eta kooperatibistak, denak multzo ñabarrean, zama handia kargatzen ari ziren, besteak beste fikziozko 21 film luze, guztiak 35mm-tan, zinemaldiaren muina izanen zirenak. Handik eta hemendik bildutako talde hura Javier Corcuera perutar zuzendariaren eginahalei esker bildua zen; izan ere, ezaugarri duen ahots ezti harekin, deabrua bera ere limur lezake arima-azterketa egin zezan. Baina Corcuera are egiteko latzagoa zuen orduko hartan: zine-areto baten jabea limurtzea, balio handiko bi proiektagailu maileguan utz ziezazkion, zertarako eta basamortura eramateko...

Hegazkina beherantz hasia zen Internetetik jaitsitako irakurgaiak, hurbiltzen ari ginen eskualdeari buruzkoak, bukatu nituenerako. Hemen bizi-itxaropena 45 urtekoa da gizonezkoentzat, eta 47koa emakumezkoentzat. Lur hartzen ari ginen bitartean, are ageriago egin zitzaidan datua. Nonbait, 45 urtetik aurrera bizirik jarraitzea opari bat dela imajinatzeak oinak lurrean jartzen dizkizu.

Smarako errefuxiatu-eremurako bidaia ongi hasi zen. Autobusek eta lur orotako autoek osatzen zuten karabana. Gure gidaria esne-mamitan zihoan, alboan eseritako aktoreen arreta bereganatuta. Laia Marull eta Candela Peña ziren. Bide batez esanda, Marullek irabazi berria zuen aktorea onenaren zilarrezko maskorra Donostiako Zinemaldian, «Te doy mis ojos» filmarengatik. Asfaltozko bidea atzean utzi eta hondarrezkoan barrena abiatu ginen. Ordurako, gidariak musika ozen-ozen jarri eta autobusak eta kamioiak saihesten zituen, lasterka zoroan, ibilgailuaren atzealdean gindoazenok, deabruak hartuta bezala, saltoka ginderabiltzan bitartean, dena oihi eta algara.

Ondo gautua zen iritsi ginenerako. Ez zen argi bakar bat ere ikusten 40.000

lagun baino gehiagoko bizitoki hartan. Linterna baten laguntzaz, pezozko hesiak inguratutako barruti bateraino gidatu gintuzten arineketan, eta han hasi zen anabasa. Beharbada, 250 lagun bosnaka taldekatu eta taldeak saharar familia banari egokitzeak lan erraza dirudi. Ez, bada. Egia esatera, axolarik ere ez. Esperientzia biblikoa izan zen: ahuntzak beeka, haurrak nonahi zirimolaka, kolore askoko beloetan bildutako emakumeak batera eta bestera aginduka eta agirika... Hura guzti hura, dorre tantai eta kordokatu ezina zirudien figura beduino garai eta lirain baten begirada isilaren pean.

Bederatzi bat urteko ume batek eskutik oratu ninduen, eta denak (eskoziar bat, ingeles bat, euskaldun bat eta bi perutar) jarraiki gintzaizkion ilunpean, hark arin eta trebe pezozko adreiluak egiteko hondarrezko zuloak saihesten zituen bitartean. Nola duzu izena? Mohammed. Beste ume batek Joss argazkilariaren eskuari heldu zion. Nola duzu izena? Mohammed. Ume gehienek badakite gutxieneko espainieraz. (Errefuxiatuen kanpalekuetan tenperatura itogarria da, 55 gradura ere irits daiteke udaran. Espainiako elkarte bat sortu da, Saharar Herriaren Lagunena, Fronte Polisarioarekin batera diharduena. Udako bi hilabete beroenetan 7 eta 12 urte arteko ehunka ume Espainiara eraman eta borondatezko familietan abegi ematera dedikatzen dira, «freska» daitezen).

Umeak hitz eta pitz ari ziren, barrezka, eta galderak egiten zituzten tai gabe, azkenean «gure» familiagana iritsi ginen arte: bi denda eta itxura hauskorra zuten pezozko bi eraikin xume. Bi lagun genituen zain: aita, Tiyyb (60 urtekoa), gizon lerdan eta dotorea, bi metro garai zena, eta andrea, Lamat Ali; iritsi orduko, biek ala biek etxean bezala sentiarazi gintuzten. Ez zuten espainieraz egiten, baina begi goxo eta abegikorrek zituzten. 90 urteko amona (egonaldi osoan ikusi nuen adineko pertsona bakarra) handik gutxira sartuko zen, handikiro. Baina bitartean bost hilabetezko umetxoak, Sainabok, protagonismo guztia bereganatu zuen. Keinuei eta bitartekariarena egiten zuten umei esker, ulertu ahal izan genuen non egingo genuen lo: denok elkarrekin, kanpoan zegoen dendan paratutako lastairetan. Harrez geroztik, Mohammedek eta Mohammedek berriro gidatu gintuzten kanpalekuko erdialdera, Zinemaldiaren harrera hantxe izanen baitzen. Hori bai, haraino iritsi baino lehen 20 bat minutuz galduta ibili ginen.

Asentamendu hartako biztanle askok eta askok ez zuten lehenago sekulan ikusia film bat pantaila handi batean. Denda batzuetan baziren auto baten bateriaz zebiltzan telebistak; bateriak, era berean, eguzki-panel soil bati konektatuak egoten ziren. Denda bakoitzean egoten zen argi bakarrak ere kanpotik oharkabea geratzen zen paneletik hartu ohi zuen indarra. Enparantzan baziren eraikin mardul bakan batzuk, topagunerako erabiliko zirenak. Areto handienaren barrualdean pantaila bat muntatua zuten, eserita 500 eta 700 ikusle bitarte har zezakeen gunearen aurrean. Harrez gain, kanpoan, izarren pean,

«basamortuko pantaila» aurkitzen zen, 8 bat metro garai eta 13 metro zabal. 35 bat metro atzerago, garita txiki bat eraikia zen, proiektziogilearentzat.

Argi-izpi luze hark bazuen magikotik, nahiz eta sarritan jeepen faroen argiek distorsionatzen zuten, pelikularekin nahasten ziren durbantedun itzal luzexkak proiektatuta. «Haizearen nomadak» ematen ari ziren, hegazti migratzaileei buruzko dokumental bat. Txori samalda batek zitzu bizian ibaiak, itsasoak eta Ozeano Antartikoa zeharkatzen zituen, kamera-sistema sofistikatu bat atzetik segika zuela. 40 minutu igarota, zenbait ikuslerengan egon eza sumatzen hasi nintzen: aski ziren lumak eta hegoak; noiz hasiko zen istorioa?

Arratsaldeko azken orduan 1.500 ume taldean etorri ziren, komedia bat ikusteko gogoz aretoan sartzen saiatu zirenak. A zer nolako haserrealdia denentzako lekurik ez zegoela ikusita; baina azkenean bigarren emanaldi bat antolatu zen eta berehala baretu ziren.

Film guztiak sahararren ordezkariak hautatuak ziren. Baziren haurrentzako marrazki bizidunak, komedia arinak, dokumentalak, eduki gogorragoko drama sozialak... Batzuetan, Europaren irudia aberastasun eta exotismoari lotua agertzen zen, hemen nornahi ongi kokatutako profesionala balitz bezala; beste batzuetan, ordea, oso errotutako kontraesanak aztertzen ziren. Julio Medemek «Euskal Pilota» dokumentala ekarri zuen, euskal gatazkaz hausnarketa egiten zuten askotariko pertsonak aurkezten zituen eta bide batez espainiar gobernuaren sumindua zuena. Chus Gutierrezek bidali zuen «Poniente» filmak immigranteen, gehienbat marokoarren bizimoduak azaltzen zituen, Espainia hegoaldeko txaboletan pilatu eta Europan kontsumitzeko fruta eta barazki asko eta asko hazten diren berotegietan lan egiten dutenenak. Era berean, ordura arte sahararrei buruz egindako hiru pelikulak ere ekartzea lortua zuten. Goizaldeko emanaldiak, ordu bietan, «El Otro Lado de la Cama» komedia gatzdunak eztabaida piztu zuen ikusle adintsuenetan, lehendabiziko bular biluziak agertu orduko. Baina, espero zitekeen bezala, haien marmarrek lortu zuten bakarra izan zen sekulako ika-mika eraikitzea, biharamunean areto itxian berriro eman zedin. (Rubiok, Polisarioko aspaldiko aktibista batek, antolatzaileei aholkatu zien, film batek nahikoa ikusle erakarriko ez zuen beldur egonez gero, polizia pare bat jartzeko aretoaren atarian: berehala, egundoko «overbooking» izanen zuten sarreran.)

Zinemaldiaren lehenengo gaualdiaren ondoren, etxera itzuli ginen, oraindik erabateko ilunpean orientatzeko gai ez ginelarik, Mohammed eta Mohammed lagun genituela. Tiybek eta Lamatek egin ziguten harrera, zeren eta gautu samarra bazen ere lagun batzuekin solasean eta tea hartzen ari baitziren.

Hiru ordu geroago, eta zurrunga eta arnas ziztuen kontzertuaren erdian, hainbeste te edan ondoren espero bezala, batzuen eta besteen joan-etorria

hasi zen. Txanda niri tokatu zitzaidanean gutxienez baziren bi umetxo titia edoskitzen; baina lehenago hainbat oztopo saihestu behar izan nuen, bat edo beste hezur-mamizkoa, nire txokotik irteeraraino iristeko. Ume bat zapalduko ote nuen ikararen ikaraz, tamaina guztietako gorputzak zeharkatu nituen. Orduan Sainabo ediren nuen, amaren altzoan kuzkurtua. Bai eta ondoeza sentitu ere, lastaira onenak geuri utziak zizkigutela jabetzean.

Basamortuko zeruak arnasa ebaki zidan. Esne Bideak dir-dir egiten zuen: hantxe neukan, nire aurrean, eder-eder eta zirrargarri, intentsitatea ken liezaiokeen lurretiko argirik batere gabe. Burura etorri zitzaidan proiektagailu bat eta zeluloide-erroilu zenbait haraino eramateko lan eskerga huskeria izan zela, ia barregarria, halako edertasun arranditsuaren aldean. Izar uxoez etengabe zeharkatzen zuten pantaila miragarria.

Goizean, denak abaildu ginen gosari goxoaren inguruan. 10 urtez Kuban ikasi zuelako itzultzailearena egin zezakeen ahaide bat batu zitzaigun. Bat-batean, denda hartan, saharar historia hezurmamitu egin zitzaigun: ama, Lamat, benetako etxe batean bizi zen Mendebaldeko Saharan, 1976 baino lehen espainiar kolonia zenean. Tiyb, senarra, 1973an fundatutako Fronte Polisariori lotu zitzaion, eta espainiarren aurka borrokatu zuen bere herriaren independentziaren alde. 1975ean, Nazioarteko Auzitegiak autodeterminazio eskubidea aitortu zion Mendebaldeko Saharari; baina urte bereko azaroaren 6an Marokoko errege Hassan II.ak jatorri apaleko 350.000 marokoar inguru limurtu zituen, muga zeharkatu eta Mendebaldeko Saharan koka zitezen, han bizimodu hobea izanen zutelakoan (Indonesiak Ekialdeko Timoren egindakoaren antzera). Halaxe hasi zen «Martxa Berdea». Espainiak, anartean, entzungor egin zion Nazioarteko Auzitegiari, eta koloniaren iparralde Marokori esleitu zion –arrantzarako eta fosfato jalkin jorietarako eskubideak beretzat gorde arren– eta hegoaldea Mauritaniari, sahararren nahiei erabat muzin eginda.

Espainiak 1976an hanka egin orduko, Fronte Polisariok Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuen; beraz, Maroko eta Mauritaniaren aurkako gerra piztu zen. Lamatek, bere herri osoarekin batera, ihes egin behar izan zuen. Errefuxiatu batzuk napalmez bonbardatu zituzten, ihesean zihoazela. 600 bat km basamortuan barrena eginda, Aljeriaraino iritsi ziren, eta Tindufetik 70 km hegoalderantz bertakotu ziren, gaur egun kanpalekua dagoen tokian. Gizon gehienak armadan zeudenez, emakumeak izan ziren, haur eta zaharrekin batera, bizimodua aurrera eraman zutenak, beren kabuz, eraman ere.

Lamatek eman digu, ahots eztiak eta iloba guztiek inguraturik, hasiera haietako bizimoduaren berri. Orduan bi umetxo eta ama zahar bat zituen. Lehenik eta behin, putzu bat zulatu zuten; gero, lo egiteko toki bat atundu. Baina oraindik beldur ziren gaua denda barruan emateko, marokoarrek bonbarda zitzaketen

eta. Denborak aurrera egin ahala, emakume eta haur gehiago iritsi ziren. Lehendabiziko urteak ikaragarriak izan ziren, eta asko eta asko goseak hil zituen, laguntzeko egiturak behin betiko finkatu artean.

Pixkanaka-pixkanaka, beren eskuz, emakumeek eraiki zuten kanpalekua. Lehendabiziko eskolak antolatu aurretik, Kubak haurrak handik ateratzeko eta hezibidea emateko eskaintza egin zien. Garai hartantxe jakin zuen Lamatek senarra preso harrapatu zutela (bost urtez; gero, gaixotu eta ospitalera eraman zutenean, handik ihes egin zuen). Lamatek zioenez, amek bilera luze eta tirabiratsuak izan zituzten, dilema ikaragarria ebatzi behar baitzuten: umeak ondoan edukitzea, kanpalekuko eskasiaren menean, ala itsasoz bestaldera bidaltzea. Askok bigarren aukeraren alde egin zuten, eta ehunka ume abiatu ziren, haien artean bederatzi urteko ume batzuk ere bai. Kubara joan zirenak ez ziren Unibertsitateko ikasketak burutu arte itzuli.

(Kanpalekuko jatetxe bakarrean bi zerbitzari ezagutu nituen, espainieraz Habanakoak balira bezala mintzatzen zirenak. Raduan ingeniari teknikoak gameluki xerrak banatzen zituen bitartean, I.T.-n lizentziatutako Sas-ek edariak zerbitzatzen zituen. Jorge Perugorria, Kubako aktorerik ospetsuenetakoa eta Espainian ere ezaguna, gurekin zegoen. Ia-ia ipurdiz atzera erori zen saharar gazte bat hurbildu eta hasi zitzaionean errepikatzen, hitzez hitz, aktoreak Habanan filmatutako «Fresa y Chocolate» pelikulan interpretatzen zuen pasarterik famatuena. Orduan beste saharar batzuk etorri eta hesteak barrez lehertzeko zorian egon zen, jaioterriko txisteak entzunda).

Hogeita zortzi urte geroago, Lamatek eta ondorengoek errefuxiatu-kanpaleku berean jarraitzen zuten bizitzen. Primerako antolakuntza duten arren, afrikar kontinentean hobekien formatutako eskolaumeetarikoa batzuk hezten dituzten ikastetxeak eta guzti, kanpalekuak kanpoko laguntzaren beharra izaten jarraitzen du, biziraungo badu. Eta hemengo bizimodua ezin gogorragoa da. Ahotsaren tonuak ez zuen ezkututzen Lamatek, etsita, ez zuela ikusten «etxera», Mendebaleko Saharara, itzultzeko abagunea. 1991n itxaropen izpi bat piztu zen, Nazio Batuen babespean su-etena ezarri zenean. Izan ere, NBEk behin eta berririo argitaratu ditu erreferenduma deitzeko ebazpenak; baina kontua korapilatzen da botoa nork eman dezakeen erabaki behar denean. Edonola ere, bistan da Marokok –disidente politikoak torturatzen dituen berberak– ez duela ebazpenei men egiteko batere gogorik, non eta nazioarteko presioak hartara behartzen ez baldin badu. Bitartean, 1.500 km-ko harresiaz bestalde (bitxia da, gero, Txinakoa baino are luzeago den horretaz inork ez duela aditu ere egin...) badaude 120.000 soldadu marokoar, eta pertsonen aurkako milioi bat mina baino gehiago, Mendebaldeko Sahara bi alderditan banatzen dutenak. Haietako batean, Marokok arrantza eta kalitate handiko fosfatoak ustiatzeko eskubideak gozatzen ditu; areago, berrikitan baimendu die Iparramerikako Kerr McGhee eta Frantziako Total petrolio-konpainiei petrolio bilatzen. Beste



aldean, milioi laurden lagun inguru hala-moduz bizi da, basamortuan geldia, nazioarteko komunitatearen lehentasunak ezartzen dituztenek ahaztuta, 30 urte baino gehiago baitira bizilekua ebatsi zietela.

Horixe da, hain zuzen, Zinemaldi hau antolatzeko arrazoi nagusietariko bat: gogorarazteko munduari oraindik existitzen dutela. Baina arrazoi sinpleagorik ere bazen: aukera bat ematea pelikula bat sekula ikusia ez zutenei, 110 minutuz milaka ikusleren artean eseri eta irudimena hegan uzteko esperientzia zoragarriaz goza zezaten. Ikusmin kutsagarria zuten. Hurrengo hiru egunetan gure filmak erakutsi ez ezik, solasaldiak ere partekatu genituen. Topaguneetan denetarik pixka bat izan genuen: batzuetan, elkarrizketa distiratsuak eta nahiko bihurriak; bestetuetan, mordoilo eta erretoriko samarrak. Nolanahi ere, beti gailentzen zen beste munduak ezagutzeko grina. Hamar urteko neskatxa batek esan zidan filmak ikaragarri gustatzen zitzaizkiola, baina ez zituela ongi aditzen. Hasieran ez nion ulertu, teknikariek primerako lana egina baitzuten soinu ona lortzeko. Baina kontua da neskatxa, txikienen umezain utzia bazuten ere, nolabait moldatzen zela pantaila handia kilometro erditik espiazteko. Bihotza hunkitu zidan. Beste gau batean, mutiko batek bere egin ninduen (ezin nuen gainetik kendu!) eta pelikula bat ikustera sar nezan erregutu zidan, sarrerako poliziak bultzaka atzera egotzia zuen eta. Zenbat urte dituzu? 16. Gezurti halakoa! Nola duzu izena? Mohammed. Are estuago oratu ninduen, eta begietan etsia ikusi nion. Jendearen zurrunbiloan nola edo hala aurrera egin genuen. Poliziak berriro geldiarazi zuen. «Mohammed nirekin dator», esan nion, eta jarraitu genuen. Zoko batean eseri eta... hura zen, hura, haren begitarteari zerion lilura!

Zinemaldi hark zinemaren beste ondorio zirraragarrietako bat ere oroitarazi

zidan: entzutea, hitz egitea, eztabaidatzea, gai berbera oso modu desberdinetan interpreta daitekeela ikustea. 14 urteko mutil bat hasi zitzaidan, inork galdetu gabe, «Sweet Sixteen» filmari buruz hizketan. Umeez guztiz ezaxola agertzen zen ama bat drogazale izateak gain egiten zion. Errefuxiatu-eremu batean jaiotako ume hura (etorkizuna argi eta garbi zuen: Kubara joan eta medikuntza ikasi) ahaleginak eta bi egiten ari zen eskoziar familiaren arketipo batean gertatutako galera eta maitasun eskasaren zentzua bilatu nahian. Nola jazo liteke halakorik? galdetzen zuen... Solasaldi haien paraleloan, jai giro xarmagarria izaten zen. Jaki zoragarriak eskaini zizkiguten, guretzat dantza egin zuten, kantatu, inoiz ikusi dudan zabaltzarik handienez futbol partidua jokatu eta kristoren jipoia eman ziguten.

«Sweet Sixteen» filmaren aurkezpena, izarpeko gau giroan 2.000 inguru sahararren aurrean espainierara bikoiztuta, esperientzia surrealista samarra izan zen. Haize goxoa zebilen eta hondarrezko zirimiria ari zuen gure gainera. Jendetzaren erdian Marta ikus nezakeen, linterna ordenagailu eramangarriaren gainean zintzilik, hamabost metroko kable batez konektatuta. Martak eta kideek, gaupasa eginda, gure filma arabierara azpititulatzeko lana bukatu berria zuten, emanaldia baino ordu erdi lehentxeago. Ordenagailua eta bideoa konektatuak zituen: espainierazko elkarriketak entzun ahala, tekla bat sakatu eta, dena ongi joanez gero, pantailan arabierazko idazkerak agertzen ziren. Halaxe egin zuen emanaldi osoan. Lan gaitza, lan gaitzik bada, ordainik gabekoa, itzultzaileei informatikarien iaotasun eta jakinbideak eskatzen zizkiena.

Zenbat txorakeria bururatzen zaion bati halakoetan... Beloe eta harri eta zur begiratzen zuten aurpegiek osatutako nahas-mahas hari begira, filma hasi zenean hatzak gurutzatu nituen, 25 minutura agertzen zen Pinball-ek horman pinturaz idatzitako hitza, «zakilotea» itzulia egon ez zedin. Ez zuen inork alde egin emanaldirik, eta hura seinale ontzat hartu nuen. Gero beste film bat eman zuten, eta banaka batzuek baino ez zuten alde egin. Eta gero beste film bat (hirugarrena segidan) eta orduko hartan begiek dir-dir egin zieten: «Historias de la Guerra del Sahara». Han eserita, beren buruak pantailan ikusita, ispilu bakar bat ere ikusia ez nuen kanpaleku hartantxe, zer sentitzen zuten imajinatzen saiatzen naiz. Halakoetan gogoratu beharra daukat zinema dela, salbuespenak salbuespen, emankortasun handiko giza joko bat, bai, baina istorioen, balioen eta bizien elkartruke hori, ondikotz, norabide bakarrean eman ohi dela. Horrexegatik genuen han giltzarrietako bat tailerren antolakuntza, saharar gazteek ikas zezaten beren kabuz film laburrak eta dokumentalak egiten; hortik aurrera, nork daki zer emanen duten...

Canneseko klausurako ekitaldiak lardakeria emanen zuen han ospatutakoaren aldean. Partaide guztioi «basamortuko arrosa» eder bana (basamortuko ekaitzek eragindako formazio kristalino bitxia da) eman zigun Saharar Kultura

Ministroak, eztabaidetan askotan parte hartutako emakume alai eta bizi-biziak. Ministroak kanta bat kantatzeko eskatu zion tokiko bandari, epaimahaiak «aipamen berezia» zeini eman erabakitzen zuen bitartean. Bost minutu geroago, denak atera eta Lehen Nazioarteko Zinemaldi Sahararreko film onenaren saria «El Bosque Animado» animazioako film galiziarriari esleitu zioten. Saharar bandaren ondoren, Euskal Herriko Fermin Muguruza eta bere 11 kideen musika-emanaldi apoteosikoa. Segundo gutxitara mundu osoa jauzika jarria zuten. Eta orduan gauza zoragarria gertatu zen. Beloa zeramaten emakume askok dantza egiten zuten, bisitariak eta saharar gizonak dantzari ari ziren erdialdetik pixka bat aldenduta. Ordubetez, denok egiten genuen jauzi eta, bat-batean, zehatz-mehatz nola eta noiz ez badakit ere, kongra luze bat osatu zen, suguen modura sigi-saga, gero eta luzeago... Eta denak bat eginda nahasi ginen, belodun andreak, durbantedun gizonak, txima luzeak eta burusoilak. Orduan zoriontsu sentitu nintzen filmak egiteagatik.

Dendara itzuli ginenean oso berandu zen, galdu ginen, baita hondarra ateratzeko zuloetan erori ere, harik eta goizeko bostetan iritsi ginen arte. Umeak bezala sentitu ginen ikusi genuenean Lamat atarian zain. «Ziur jakin nahi nuen ongi zeundetela.»

Ekitaldiari Espainian eman zitzaion publizitatea balekotzat eman daiteke. Antolatzaileek garrantzi handia ematen zioten telebista publikoan gehien ikusten diren bi teleberrien bukaeran eman beharreko «gizabide-intereseko» publizitate-spot bati. Zoritzarrez, Bartzelonako zooko «Elur Maluta» 40 urteko gorila albino bat hil berria zen, eta programaziotik at geratu ginen. Batzuetan, Afrika eta Europa banantzen dituen 15 kilometroko ur-zerrenda horrek Esne Bidea bera baino luzeago eta zabalago dirudi...

Argibide gehiago, honako honetan: wsc@gn.apc.org

(Sweet Sixteen Ken Loach-ek zuzendua eta Paul Lavertyk idatzia da. 2002an Canneseko Zinemaldian gidoi onenaren saria irabazi zuen)

Basamortuko pantaila

Javier Corcuera

Saharako Nazioarteko Zinemaldiaren zuzendaria

Hamar urte dira saharar lagunek gonbidatu nindutela ezagutzera basamortuko basamortua, halaxe deitzen baitute hiru hamarkada luzeko deserrian kanpalekuetan bizitzera behartuta dauden eremu lehor-lehorra. Pelikula bat filmatzeko asmotan nindoan; nire lehen film luzea estreinatu berria nuen eta errealitate hura bertatik bertara ezagutu nahi nuen. Bidaia hartan hainbat istorio posible izan genuen hizpide, eta zinema saharar herriaren alde jar zitekeen baliabidea zela genioen; solasaldi haiexetan ezagutu nuen nire anai Ahmed «ilegorria», abentura hartan hasiera-hasieratik lagundu gintuen saharar bat. Ahmed eta beste adiskideekin hizketan, zinema kanpalekuetara ekartzeko eta zinegileak formatzeko ideia sortu zen, sahararrek berek konta ditzaten kontatu beharrekoak. Halaxe gorpuztu zen zinemaldi bat egiteko plana. Erokeria zirudien, ezinezkoa; baina saharar herria ezinak ekinez egitera ohitua dagoenez, hurrengo urtean hantxe ginen, basamortuaren erdian, mundu osoan errefuxiatu-eremu batean dagoen zinemaldi bakarra eta zinema-eskola erakarriko zuten tailerrak inaurratzen.

Zinemaldiak dituen zortzi urte honetan hamaika gauza partekatu dugu, lerrootara ekartzerik dagoena baino askoz ere gehiago. Errefuxiatu askok lehen aldiz ikusi zuten pelikula bat. Aktore, zuzendari, idazle eta musikari askok bisitatu gaituzte, eta bertan ainguratu dute bihotza, eremu elkorra izan arren anai-arreba sahararrek etorkizunez betetako herrialdea osatu duten tokian. Ez dut inoiz ahantziko bertan bizitutakoa, duintasuna eta bestearekiko begirunea banderatzat dituen herri honengandik neureganatutako maitasuna. Basamortuko pantaila hartan, sahararrei istorioek mundua ikusteko leiho bat zabaldu zieten era berean, sahararrak ikusteko eta haiengandik ikasteko pantaila bat ere zabaldu zitzaion munduari. Dagoeneko basamortuko pantailan hasi dira bertako zinegileen pelikulak proiektatzen; egunen batean, itsasoaren parean proiektatuko dira. Horretan ere bakarra delako zinemaldi hau: desagertzeko, lekualdatzeko bokazioan; izan ere, herri osoak du Sahara libre batera lekualdatzeko bokazioa.

Denok Sahararekin

Javier Bardem

Egia esan, nik beti joan nahi izan dut FISaharara, errefuxiatu-eremu batean ospatzen den zinemaldi bakarrera. Azkenean, 2008an bertatik bertara ikustea izan nuen izarpean gauzatzen den mirari hura. Han, basamortuaren erdian, ezerezaren erdian, bizi, eutsi eta ez etsi egiten duen herri bat ezagutu nuen; gainera, kulturaz eta zinemaz kezka duen herri bat da: horixe da miraria.

Dajlan egon nintzen, FISahararen egoitzan, kanpaleku batean, gizabide aldetik drama handiko tokian, hango egoera okerragotu egiten baita urtetik urtera, bake prozesua gelditu, eta horrek guztiak ahulenak kaltetzen ditu bereziki. Kanpaleku guztiak kontuan hartuta dauden 200.000 pertsonak behiala espainiar izandakoak eta duela 35 urte basamortuan abandonatutakoak dira; horrexegatik, gure herrialdeak ardura berezia du haien auzian.

Alabaina, harrigarria izan zen konprobatzea nolako gaitasuna duten gauzak antolatzeko, jakinik jende hori, saharar herria, infernuaren atzeko patioan bizi dela. Biziaren arrastorik ere ez dagoela uste duzun tokian, hantxe, badago herri oso bat. Ezinezkoa dirudi, baina guztiz isolatua eta ahaztua dagoen jendeak oso errotua du besteenganako errespetua: askoz gutxiagorengatik, jende asko zoratu eta basakeriak egingo zituzkeen.

Apika, bizipenik deigarriena, garrantzitsuena, bai bederen norberak bere etxera bihotzean daramana, familiekin izandako egonaldia da. Etxe horietan, haima horietan, sartu eta den-dena partekatzen duzu haiekin; elkarren artean sortutako harremanak, eta batik bat eskaintzeko duten erak eta erakusten duten jokabideak, bete-betean harrapatzen zaituzte. Horrez gain, benetako xera eta begirunea diote espainiar hizkuntza eta jendeari. Kolonizatzaileekin halako harreman eta goxotasuna gorde duen herri bakarra delakoan nago ni.

Espainiar gizarte zibilak saharar herriari eskainitako laguntza itzel eta etengabea ere egiaztatzen ahal da bertan. Horrexegatik, batek nahi luke halako duintasun handiko gizarte zibila duen gobernu batek atzenduko ez balu etengabe eskaini beharreko laguntza, gizabidekoa izan, hezkuntzako izan, osasuneko, kulturakoa... eta onartuko balio saharar herriari berezko duena, ez besterik: dagokion lurraldea.

FISahara helburu

Sandra Maunac eta Mónica Santos

Masasam. Espacios de creación. Komisariotza

2009ko maiatzean, FISahara izeneko Saharako Nazioarteko Zinemaldiko zuzendari Javier Corcuerak eta Donostiako Saharar Herriaren Lagunen Elkarateak argazki-erakusketa bat egiteko iradoki ziguten, honako helburu nagusi hauek betetzearren: batetik, ahaleginak eta bi eginda, jada zortzi ediziotan munduko bazterrik baztertuenetako batera zinema eraman duen Zinemaldiaren historia kontatzea; bestetik, saharar herriak, Aljeriako hegoaldean hogeita hamabost urtetan deserrian egon ondoren, nazioartean eta komunikabideetan nozitzen duen ahanztura erroiztea.

Halaxe sortu zen «FISahara helburu» istorioak eta historiak ehuntzen dituen, narrazioak batzen dituen eta bizitzak tartekatzen dituen erakusketa bat; izan ere, zenbait lagunek uste osoa dugu oraindik orain argazkilaritza, idazkia edota zinema baliabide egokiak direla, bizi garen errealitateak islatzeko eta eraldatzeko tenorean.

Erakusketa bi elementuk osatzen dute: testu batek eta olan handitan inprimatutako irudiek. Eduardo Gleanoren Muros (Harresiak) da erakusketaren hari eta gidari, argi eta garbi eta bikain adierazten baitu lurrak lapurtu zizkietelako errefuxiatu-eremuetan bizitzera behartuta daudenen bidegabekeriazko egoera. Testuaren mami politikoak bat egiten du irudiekin. Irudien egileak, berriz, honako argazkilari hauek dira: Per Rueda, Sergio Caro, Joss Barratt, Manuel Fernández, Xavier Gil Dalmau eta Casper Hedberg, Zinemaldiak berez zekarren erronkari eutsi eta berebiziko ekitaldi hura dokumentatzera joanda beren istorioak ere kontatzen dizkigutenak.

Argazkiok hainbat kitzikapen sentiarazten digute: hondarra, bertakoen eta bertaratutakoen arteko hurbiltasun eta konplizitatea, eguzkiaren beroa, gaueko hotza aire libreko emanaldietan, argi-izpia basamortuko ilunaren erdian, generadore batetik atera daitekeen magia, eta ezina ekinez egina esamolde hutsetik egia bihurtu izana. Azken finean, irudioi ahalmen handia darie: hunkimenez, barrez edo negarrez aurpegiak argitzeko gaitasuna, oraindik misteriotso eta barru-barrukoa den zerbait, ikuskizun hutsetik harago enigma sakratu bat dagoela iradokitzen digun zerbait, denok elkartzen gaituen zera hori, isiltasun ezin adierazgarriagoan batzen gaituen artea delako zera hori.

Erakusketa hau 2009ko irailean abiarazi zen, Donostiako Zinemaldian, Kutxa Boulevard erakustaretoetan hain zuzen, eta harrez geroztik bi urtetan egon da ikusgai, hainbat zinemalditan ibiltari, Espainian ez ezik, baita Kuban ere. Elkarrekin egindako ibilbidearen ondotik, bidaian jarraitzeko beste era bat bilatu behar zitzaiola deliberatu genuen. Bidea ez ixtearren, liburu bilakatu dugu. Funtsean eta mamian, erakusketaren luzapena da liburuak: alde batetik, lehengo olanak erakustaretotik atera eta liburu-ale bakoitzari azal-zorro bana egin zaio, pertsonalizaturik; beste aldetik, oinarritzko osagaia du orri zabalgarri bat, non erakusketako argazki guztiak ~~eta Galeanoren testua dauden~~. Hortaz, asmoa da liburuaren bitartez irudietan murgildu ahal izatea; murgildu ahala entzun eta irakur daitezke hainbat testigantza: duintasunez independentziaren alde borrokan diharduen herri baten ametsarekin batera, zinemaldiaren magiaz gozatu dutelako eta horixe bera Saharako basamortura iristea ahalbidetu dutelako zuzeneko lekukotza eman dezaketen hainbat lagun, pertsonaia eta erakunde aurkezten ditu liburuak.



Edizioa eta produkzioa

Donostiako Saharar Herriaren Lagunen Elkarte
Masasam. Espacios de Creación

Koordinazioa

Monica Santos eta Sandra Maunac. Masasam. Espacios de Creación

Testuak

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia
Juan Karlos Izagirre Hortelano. Donostiako alkatea
Carlos Ruiz González. Kutzako Gizarte Ekintzaren zuzendaria
Eduardo Galeano
Paul Laverty
Javier Corcuera. Saharako Nazioarteko Zinemaldiaren zuzendaria
Javier Bardem
Monica Santos eta Sandra Maunac. Masasam. FISahara Helburu Erakusketaren Komisariotza

Itzulpena

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Departamendua (Espainiera-Euskara-Frantsesa) / Paul Ruffner (Espainiera-Ingelesa) / Iciar Bollain (Ingelesa-Espainiera)

Kontzepzio grafikoa

Masasam. Espacios de Creación, Bonus Extra-ren laguntzaz.

Inprimaketa

Artes Gráficas. Palermo

Eskerronak

Jose Taboada Valdes FISaharako eta CEAS Saharar Herriaren Lagunen Elkartearen Koordinadorako presidenteari, eta lantalde osoari, haien erabateko ahalegin eta grina gabe ez bailitzateke basamortuko mirari hau gauzatzerik izango.

Jose Luis Paulin medikuari, Donostiako alkate eta beste hainbat sendagile kooperantekin batera aldiro-aldiro bisitatzen baititu Tindufeko kanpalekuak, eta testu honen idazketan ere lagundu baitu.

Donostiako Udalarai, FISahara sortu orduko diruz laguntzen baitu.

Kutzari, betidanik eskaini baitio bere laguntza Zinemaldi honen hedapenari.

Per Rueda, Sergio Caro, Joss Barratt, Manuel Fernandez, Xavier Gil Dalmau eta Casper Hedberg argazkilariei, haien argazkiak utzi baitituzte.

Eduardo Galeano eta Paul Lavertyri, haien poesia eta argitasun adierazkorrengatik.

Jose Angel Zuazuari, proiektu honi berebiziko energiaz heldu batio.

Erakusketari abegi ona egin dioten guztiei. Kuban: Espainiaren enbaxadari eta bertako lantalde osoari, Habanako Festival del Nuevo Cine Latinoamericano zinemaldiari, Gibarako Festival Cine Pobre zinemaldiari, Holguineko Romería de Mayo delakoari. Espainian: Donostiako Kutzxa Boulevard erakustaretoari, Tarifako Festival de Cine Africano zinemaldiari, Alacanteko Alfas del Pi herriko zinemaldiari.

Lotura Films-i, irabazi asmorik gabe babestu baitu erakusketa.

Alicia Guirao, Blanca Nieto, Alfonso Reveron eta Paco Vallejori, beren sormenarengatik.

Mat Jacob eta Manuel Sesmari, beren etengabeko laguntza eta babesarengatik.

Finantzazioa



Donostiako Udaleko Giza
Eskubideen Departamendua